

# Ingurumen-kudeaketaren eta energia-efizientziaren inguruko politika

Avanza, enpresa arduratsua eta ingurumena eta ekosistemak babestearekin konprometitua

## Gure konpromisoa

**Avanzako** Zuzendaritza Nagusiak, jasagarritasunaren, energia-efizientziaren eta emisio kutsatzailen murrizketaren arloan hobetzeak duen garrantziaz jabetuta, inguruneari ekarpena egin nahi dio, eta, horretarako, baliabide naturalak zentzuz erabiltzea, berrerabiltzea edo birziklatzea eta energia aurrezteko sustatzen du, kutsaduraren prebentzioan jarduten du, hondakinen kudeaketa hobetzen du eta inpaktua murrizten du, gure zerbitzuak ingurumenean integartzeko asmoz.

**Avanzaren** asmoa da arau-betekizunak eta legeria zorrotz betetzetik haratago joatea. Ildo horretan, eguneroko kudeaketa integratu eta egikaritzen ditu eraginkortasuna etengabe hobetzeko behar diren erabakiak, eta, gainera, ingurumen-jardunbide egokiak sustatzen ditu bere

- Erreferentzia-esparru bat ematea **ingurumen-helburuak eta jomugak**, eta **energia-efizientziari** eta **gidatzeko efizientziari** dagozkienak ezarri, berrikusi eta aldizka ebaluatzeko, baita ingurumen-kudeaketaren inguruko politika ere, etengabe egokitzeko.
- Ingurumenaren eta energia-efizientziaren inguruko helburuak eta jomugak lortzeko behar diren **informazioa** eta **baliabideak erabilgarri** daudela ziurtatzea.
- Ingurumen-erlako alderdi interesdunen **itxaropenak eta beharrak betetzea**.
- Ingurumen-portaera, energia-jarduna eta gidatzeko efizientzia **etengabe hobetzea**.
- Kutsaduraren **prebentziora**, ingurumenaren babesera, baliabideen erabilera jasagarri eta biodibertsitatearen eta ekosistemen babesera **bideratutako ekintzak** aplikatzea.
- Jardueraren **ingurumen-inpaktuak murriztea**, kontsumoen eta emisioen murrizketaren bidez.
- **Hondakinen sorrera eta iturriak murriztea**, eta sortutako hondakin guztiak tipologiaren arabera garraiatu, ezabatu edo birziklatzen direla ziurtatzea, ingurumen-kudeaketako jardunbide egokiei jarraikiz.
- **Energia-berrikusketak eta ingurumen-kudeaketako auditoretzak** egitea, energia-kontsumoak eta ingurumenaren gaineko arrisku potentzialak minimizatzen, hobetzeko aukerak errazago hautemateko eta ezarritako helburuak betetzen direla bermatzeko.
- Ingurumena, energia eta gidatze efizientea kudeatzeko eta arautzeko politikako **lege-betekizun** guztiak betetzea, baita ingurumen-alderdiekin, energiaren erabilera eta kontsumoarekin eta energia-efizientziarekin loturik erakundeak izenpetutako ingurumen- eta energia-erlako beste konpromiso batzuk ere.
- **Produktu, material edo zerbitzuen zehaztapen** berriak sartzerakoan, **ingurumen- eta energia-irizpideak** kontuan hartzea eta planifikatzea sail arduradunekin.
- **Produktu, ekipamendu eta zerbitzu energetikoki efizienteen** erosketak bultzatzea, baita energia-jarduna eta gidatze efizientea hobetzeko diseinua ere.
- **Langileen prestakuntza, informazioa** eta **parte-hartze aktiboa** sustatzea, ingurumen-jardunbide egokiaren sistema bat ezartzeko, eta instalazio, ibilgailu eta ekipamenduetan energia-kontsumoa murriztea sustatzeko.
- **Soluzio berritzaileen** alde egitea gidatzeko efizientziaren esparruan, eta neurketa-adierazleak ezartzea eragiketa hobetzeko eta gidatze efizientearen eragin negatiboa duten faktoreak prebenitzeko, murrizteko edo ezabatzeko.
- Ingurumenaren gaineko arrisku potentzialak murrizteko **ekintza** egokiak gauzatzea.

